



Idiazabalgo
Udala

OHIKO UDALBATZARRA
2021eko uztailaren 29an

LEKUA: Udaletxeko Batzar Areto Nagusia

LEHENDAKARIA: Iñaki Alberdi Iparragirre (EH BILDU)

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Aloña Barandiaran Munduate (EH BILDU)

Iñaki Arriaran Murgiondo(EH BILDU)

Eunate Elio Cemborain(EH BILDU)

Aritz Ugarte Munduate.(EH BILDU)

Ioana Prados Alustiza(EH BILDU)

Ioritz Imaz Baztarrika (IZAL BAI)

Iker Zabaleta Urcelai (IZAL BAI)

Andoni Gomez Aldanondo (IZAL BAI)

EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Igor Ariztimuño Iparragirre (IZAL BAI)

Aitzol Mendizabal Malkorra (IZAL BAI)

IDAZKARIA: Leire Ucin Soraluze

DEIALDIA: Lehenengoa.

ORDUA: Hasiera: 18:00etan

GAI ZERREDA

1.Aurreko akta onartzea, hala badagokio.

Alkateak galdetzen du ea norbaitek baduen zerbait esateko aurreko aktari buruz. Batzarkideek ezetz erantzuten dute, beraz aurreko akta aho batez onartzen da.

2. Dekretuen berri ematea.



Idiazabalgo Udala

Alkateak galdetzen du ea norbaitek baduen zerbait argitzeko Alkate Dekretuei buruz eta inork ez du ezer komentatzen.

3. Kale garbiketa eta lorezaintza zerbitzuen kontratazioaren harira, ANSAREO enpresari behin-behinean kontratua esleitzea onartzea, hala badagokio.

Txostena:

**KONTRATUA: IDIAZABALGO UDALERRIRAKO KALE GARBIKETA ETA LOREZAINZA ZERBITZUA
ESPEDIENTE ZENBAKIA: 2021KOIR0001**

2021eko uztailaren 19an eguerdiko 12terdietan C artxiboaren irekiera gauzatu da.

Hiru empresa aurkeztu dira eta hauek izan dira proposamenak:

- **UTE IPARRAGIRRE: 415.104,90 EUR + BEZ / Hobekuntzak: 100 ordu**
- **UTE SIFU EUSKADI-BROCOLI: 442.894,85 EUR + BEZ / Hobekuntzak: 100 ordu**
- **ANSAREO: 424.590,06 EUR + BEZ / Hobekuntzak: 0**

Kalkuluak egin dira eta hau da empresa bakoitzari esleitu zaion puntuazioa irizpide objektiboak baloratu ondoren:

	UTE IPARRAGIRRE	UTE SIFU-BROCOLI	ANSAREO
PREZIOA	56	52,49	54,75
HOBKUNTAK	5	5	0
PUNTUAK GUZTIRA	61	57,49	54,75

Ondorioz, irizpide subjektiboen puntuazioa kontutan hartuta, hurrenkera honetan gelditzen dira enpresak;

	IRIZPIDE SUBJEKT.	IRIZPIDE OBJEK.	GUZTIRA
ANSAREO	34,90	54,75	89,65
UTE SIFU-BROCOLI	24,20	57,49	81,69
UTE IPARRAGIRRE	19,80	61	80,80

Kontratazio organoari, Udaleko Osoko Bilkurari, proposamen hau egiten zaio:

LEHENA. Ansareo enpresari behin-behinean esleitzea kalegarbiketa eta jardineritzari dagokion kontratua

BIGARRENA. Enpresari jakinaraztea 10 baliioduneko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita, plegu administratiboetako 18. Artikuluan xedatutako dokumentuak eta exekuzio baldintza berezietan xedatzen diren baldintzak betetzen dituzten ziurtagiria aurkeztu behar dutela.



Idiazabalgo Udala

Idiazabalen, 2021eko uztailaren 19an.

Kontratazio-mahaiko idazkaria

Ioritz Imazek, Izal Bai-ren izenean komentatzen du empresa bat puntuazio minimora ere ez dela heltzen, eta horrek atentzioa deitzen diola. Bestalde, adierazten du irizpide subjektiboen balorazioa egin duen ingurumen teknikaria ez zela Batzordean egon azalpenak emateko, eta beraien ustez normalena izango zela bertan egotea.

Horrez gain, aipatzen du ingurumen teknikaria kontratazio mahaiko kide ez izanda, ea balorazioak egiteko eskumena baduen. Idazkariak erantzuten dio zenbait sektoreei dagozkien memoria teknikoak baloratzeko arlo horretako teknikari baten aholkularitza behar izaten dela, kontratazio mahaiko kideak ez dutelako hori zuzen eta objektiboki egiteko ez formakuntza eta ez esperientziarik.

Alkateak Izal Baiko kideak gonbidatzen ditu Udalera etortzea eta bilera bat hitzartzea ingurumen teknikariarekin dagozkion azapenak emateko.

Iñaki Arriaranek komentatzen du garrantzitsua iruditzen zaiola bi alderdiak adostea esleipen hau, Udalaren aurrekontuan eragina izango baitu.

Alkateak esaten du ez-ohiko bilera deituko duela abuztu bukaerako lorezaintza eta kalegarbiketaren kontatazioari dagokion esleipena onartzeko.

4.- 2021eko aurrekontuaren lehenengo sei hilekoaren likidazioaren berri ematea.

Kontuhartzailearen txostena:

DATUAK 2021eko LEHENENGO SEIHILEKOA LIKIDAZIOA

Hasierako aurrekontua:.....	3.741.870,62
Kreditu	6.500,00
Kreditu	123.077,75
Baliogabetzearen ziozko bajak:.....	0,00
Kreditu	98.172,00
Behin betiko	3.969.620,37
aurrekontua:.....	

Aurrekontu horren exekuzioan ondorengo hauek azpimarratu behar dira:



1.- NORAINO GAUZATU DEN GASTUEN AURREKONTUA

Goian adierazi diren ordainketa kredituen kargura onartutako obligazioak ondokoak dira, portzentajetan eta kapituluka, aurtengo ekitaldian nahiz aurreko urtekoan:

KAPITULUA	2021 EKITALDIA		
	BEHIN BETIKO AURREKONTUA	OBLIGAZIO ONARTUAK	%
1 - Pertsonal gastuak	991.338,08	494.678,66	49,90
2 - Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak	1.977.931,46	808.949,44	40,90
3 - Finantz gastuak	6.850,93	1.746,55	25,49
4 - Transferentzi arruntak	556.569,03	231.000,49	41,50
5 - Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	0,00	0,00	0,00
6 - Inbertsio errealak	341.930,87	68.776,99	20,11
7 - Kapital transferentziak	25.000,00	0,00	0,00
8 - Finantza aktiboak	0,00	0,00	0,00
9 - Finantz pasiboak	70.000,00	35.705,91	51,01
GUZTIRA	3.969.620,37	1.640.858,04	41,34

3.- NORAINO GAUZATU DEN SARREREN AURREKONTUA

Ondoko taulan jaso dira sarreraren aurreikuspenetan izan diren desbiderapenak, hau da, behin betiko aurreikuspenen eta benetan likidatutako eskubideen arteko aldea, kapituluka, azken bi ekitaldietan, bai balio absolutuetan bai portzentajetan:



Idiazabalgo Udala

KAPITULUA	2021 EKITALDIA		
	BEHIN BETIKO AURREIKUSPENAK	ESKUBIDE ONARTUAK	%
1 - Zuzeneko zergak	890.700,00	624.798,21	70,15
2 - Zeharkako zergak	90.000,00	32.813,77	36,46
3 - Tasak eta bestelako zergak	593.551,00	234.410,15	39,49
4 - Transferentzia arruntak	2.119.647,00	1.150.137,84	54,26
5 - Ondare sarrerak	5.400,00	0,00	0,00
6 - Inbertsio errealeen besterenganaketa	0,00	0,00	0,00
7 - Kapital transferenziak	55.051,00	74.461,25	135,26
8 - Finantza aktiboak	225.249,75	0,00	0,00
9 - Finantza pasiboak	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	3.979.598,75	2.116.621,22	53,19

4.- NORAINO BURUTU DIREN ESKUBIDE ONARTUAK

Aurrekontuko eskubide onartuengatik egindako kobrantzek (beraz, itxitako ekitaldietakoak sartu gabe) ondoko portzentajeak agertu dituzte kapituluka, aurtengo ekitaldian nahiz iazkoan:



Idiazabalgo Udala

KAPITULUA	2021 EKITALDIA		
	ESKUBIDE ONARTUAK	KOBRANTZA LIKIDOAK	%
1 - Zuzeneko zergak	624.798,21	571.467,02	91,46
2 - Zeharkako zergak	32.813,77	16.852,47	51,36
3 - Tasak eta bestelako zergak	234.410,15	208.605,18	88,99
4 - Transferentzia arruntak	1.150.137,84	1.150.137,84	100,00
5 - Ondare sarrerek	0,00	0,00	0,00
6 - Inbertsio errealen besterenganaketa	0,00	0,00	0,00
7 - Kapital transferenziak	74.461,25	70.766,02	95,04
8 - Finantza aktiboak	0,00	0,00	0,00
9 - Finantza pasiboak	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	2.116.621,22	2.017.828,53	95,33

5.- NORAINO BURUTU DIREN ITXITAKO EKITALDIETAN ORDAINDU GABEKO SALDOAK

Itxitako ekitaldietan ordaindu gabeko saldoetatik honako hauek ordaindu dira aurtengo ekitaldian, zorren sorburu-urtearen arabera:

SORBURU URTEA	HASIER.SALDOA URTARR. 1EAN	DEUSEZTAPEN BAJAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	ORDAINTZEKE BUKAER. SALD.	ORDAINKETA PORTZENTAJEA
2016	1.127,64	0,00	0,00	1.127,64	0,00
2019	39.937,51	0,00	37.467,03	2.470,48	94,00
2020	216.400,88	0,00	216.400,88	0,00	100,00
GUZTIRA	257.466,03	0,00	253.867,91	3.598,12	98,60



Idiazabalgo
Udala

SORBURU URTEA	HASIER.SALDOA URTARR. 1EAN	DEUSEZTAPEN BAJAK	KOBRANTZA LIKIDOAK	KOBRATZEKE BUKAER.SALD.	KOBRANTZA- PORTZENTAJEA
2010	1.273,87	0,00	0,00	1.273,87	0,00
2011	36.468,53	0,00	0,00	36.468,53	0,00
2012	18.266,42	0,00	0,00	18.266,42	0,00
2013	22.043,50	0,00	0,00	22.043,50	0,00
2014	20.401,51	0,00	0,00	20.401,51	0,00
2015	38.992,66	0,00	0,00	38.992,66	0,00
2016	51.671,42	0,00	0,00	51.671,42	0,00
2017	27.009,24	0,00	371,96	26.637,28	1,00
2018	42.472,92	0,00	1.077,96	41.394,96	3,00
2019	46.719,88	0,00	1.074,12	45.645,76	2,00
2020	164.753,73	0,00	88.189,11	76.564,62	54,00
GUZTIRA	470.073,68	0,00	90.713,15	379.360,53	19,30

6.- NORAINO BURUTU DIREN ITXITAKO EKITALDIETAN KOBRATU GABEKO SALDOAK

Itxitako ekitaldietan kobratu gabeko saldoetatik, honakoak kobratu dira aurtengo ekitaldian, zorren sorburu-urtearen arabera:

7.- DIRUZAINZAKO GERAKINAREN BIDEZ FINANTZATUTAKO OBLIGAZIOAK

Aurtengo ekitaldiaren barruan hainbat kreditu aldaketa onartu da, lehen adierazitakoaren arabera. Aldaketa horiek finantzatzeko, besteak beste, iaztik zetorren gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina erabili da. Beraz, gastuen aurrekontuko kredituak ekitaldi bereko baliabideen bitartez finantzatu dira zati batean, eta aurreko ekitaldietakoen bitartez, beste zati batean. Aurrekontu emaitza zehazterakoan xehetasun hori kontuan hartu beharko da, hala jasotzen baitu 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 48.4 artikuluan.

Aurtengo ekitaldiko gastuen aurrekontuan, ondoko hauek dira gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren bitartez finantzatutako kredituak eta abenduaren 31n lortutako gauzatze maila:



Idiazabalgo Udala

PARTIDA	AZALPENA	B.BET.KRED. DGrekin FINAN	OBL.ONART. DGrekin FINAN.
201.00.326.20	Apaiz etxe alokamendua.	4.500,00	0,00
210.00.454.00	Konp. Mant. Konts. Baserri bideak	11.736,37	0,00
220.00.920.00	Mat Horn. Bulego materiala idazk.	36,81	36,81
221.12.311.00	Hornidurak. Covid 19	6.534,00	6.534,00
226.00.323.10	Mater. Hornik. Besteak Haur eskola	3.620,93	3.620,93
226.00.412.00	Mat,horn,beste. Baserri bideak	27.258,47	0,00
226.03.430.00	Publizitate eta merchandising gastuak	274,52	226,88
227.00.153.00	Udalerriko obrak	13.862,37	12.395,22
227.00.163.00	Kale garbiketa zerbitzua	40.000,00	11.358,45
227.00.171.00	Lorategi eta parke zerbitzua	38.000,00	4.624,51
227.00.912.00	Komunikazio eta prentsa zerbitz	1.346,80	0,00
227.07.134.00	Azterketak.Mugikortasuna	5.972,00	1.634,16
227.07.920.01	Ondasunen inbentarioa	14.200,00	0,00
481.06.326.00	Oinherri herri hezitzailea	1.000,00	1.000,00
601.05.153.10	Auzoetako inbertsioak	32.548,21	32.548,21
625.02.920.00	Bulego aldaketa. Office	7.535,02	6.567,02
629.01.151.00	Gurutze berri proiektua	13.824,25	0,00
	GUZTIRA	222.249,75	80.546,19

EGONKORTASUNA

Sarrera ez finantzarioak (1-7 kapituluak) 1.660.208,77

Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak) 1.519.875,32

Finantzaketa ahalmena / premia **140.333,45**

DGak finantzatutako obligazio ez finantzarioak (1-7 kapituluak): 80.546,19

DGak finantzatutako defizita: 0,00

Finantzaketa ahalmena / premia, erreferentziazko defizitarekin
alderatzeko

140.333,45

Erreferentziazko defizita -245.000

Finantzaketa ahamena/premiak erreferentziazko defizita gainditu du? Ez

PEF didaktiko bat onartu behar al da? Ez

AURREZKI GARBIA

Sarrera arruntak likidatuak (1-5) 1.595.441,07

Obligazio onartuak (1-5 eta 9) 1.490.213,56



Idiazabalgo Udala

Aurrezki gordina 105.227,51

DG finantzautako gastu arrunta 41.430,96

AURREZKI GARBIA 146.658,47

Alkateak komentatzen du bankuan miloi bat euro inguru dagoela eta pentsatu behar dela zer egin diru horrekin, interes altuak kobratzen hasi baitira bankuak kontu korrontean dirua edukitzeagatik.

Galdetzen du ea inork baduen zerbait esateko, eta batzarkideek ezezkoa erantzuten diote.

5. Galdera eskaerak.

Ioritz Imazek Izal Bai-ren izenean

- Igerilekuko Gaia: dio xinestezina iruditzen zaiola Udal kirol instalazioak arautzen dituen ordenantza aplikagarria ez dela esatea. Alkateak erantzuten dio zalantzak sortzen zaizkiela “erabiltzaile” kontzeptuari dagokionean, ez baitute argi persona oro den edo erabilera “normala” egiten ari dena, abonatua dena edo ez dena ere bai.

Ioritzek erantzuten dio errealitate bat ebaditzen ari direla, eta iruditzen zaiola lehenago hanka sartu zutela ez dutela onartu nahi eta horretan ari direla. Iñaki Arriaranek erantzuten dio ez dela hori, benetan zalantzak dituztela, ez duela hain argi ikusten ordenantza era horretako arauhausteetan aplikagarria den, eta proposatzen dutela irtenbide bat ematea gai horri eta egun indarrean dagoen ordenantzan aldaketa batzuk planteatzea; adibidez, erabiltzaile kontzeptua zehatzago definitzea.

Eztabaidak jarraitzen du bakoitzak bere postura defendatuz. Bukatzeko Ioritzek esaten du Udalak egin beharra daukala bere esku dagoena egoera horiek ekiditeko.

- Ampo S.Coop ondoko txakurtegia: idazkariak azaltzen du jabeak hiru epe luzapen eskatu dituela eraikina kentzeko, eta orain laugarren bat eskatu du. Azken hori ez zaio onartu eta lehenengo multa jarri zaio.

- Legez kanpoko itxitura: Alegazioa bidali du. Hurrengo Hirigintza Batzordean hitzegingo da alegazioari buruz.

- Ingerilekuko langilearen COVID kasua: kontaktu zuzen bezala inor ez zuten hartu

- Igerilekuan 17terditatik aurrera sartzeko kontrolrik ez dagoela dio Imazek: Alkateak erantzuten dio beste era batera kontrolatzeko asmoa dagoela hurrengo urterako

- Izal Baikoei egokia iruditzen zaie Eskola atzean autokarabana parking-aren gaia Hirigintza batzordetik pasatzea, Plan Orokorrean xedatutakoa kontutan hartu behar baita.

-



Idiazabalgo Udala

- Ea trafikoko multak jartzen hasi den Udala: Alkateak erantzuten dio oraindik ezetz, baina hasiko direla.
- Guraso Elkarteari emandako dirulaguntza: loritzek dio espedientea aztertu ondoren ondorioztatu duela guraso elkarteak 2020an 9.000 euro inguruko superabita duela. Kasu berdina eman dela beste elkarte batzuen zuriketetan eta dirua bueltatzea eskatu zaiela. EH bilduko zinegotziek diote begiratuko dutela.
- Hautaketa prozesuak: elektrikariaren prozesua amaitu da eta irailean hasiko da zerrenda lehenengoa dagoen hautagaia. Garbitzailearen hautaketa prozesuari dagokionez, Idazkariak azaltzen du 1. HEn dagokion titulua aurkeztu ez dutenak egiaztatzeko azterketa egin behar dutela, eta hori iraileko bigarren hamabostaldian izango dela, bitartean prozesua geldirik aurkitzen da.
- Auzoetako bilerei buruz informazio berririk ba al dagoen galdetzen du loritzek: alkateak erantzuten dio bilera bakoitzean bildutakoarekin txostena egingo dutela eta batzordera eramateko asmoa dutela.

Behin puntu honetara iritsita, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko 18:25ean, eta akta hau egin dut bertan erabakitakoa jaso dadin eta beharrezko efektuak izan ditzan.

Idiazabalen, 2021eko uztailaren 29an.

O.I

ALKATEAK

Iñaki Alberdi Iparragirre

IDAZKARI KONTU HARTZAILEAK

Leire Ucin Soraluze